



# 2024 [etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

## Nafarroako 23 toki entitate / 23 entidades locales de Navarra



**Maite Rosende** eta  
**Nerea Ariznabarreta** egileek irabazi dute  
2024ko Etxepare saria  
**MAMUKI** albumarekin

**Maite Rosende** y  
**Nerea Ariznabarreta** han ganado el  
premio Etxepare 2024  
con el álbum **MAMUKI**

Etxepare sarian **31** lan aurkeztu dira.

A esta edición se han presentado **31** obras.

### Lan irabazlea:

Beldurrari buruzko album umoretsua dugu **Mamuki**. Gau Beltza da, eta mamuek sustoak eman behar dituzte, ingurumarian ikara eragin beharra daukate. Baina mamu txikia gaixorik dago eta hainbat pertsonaia beldurgarri saiatuko dira hura osatzen edo sendatzen: banpiroa, zombia... edo geureago ditugun Zakuzahar edo Otsoko, baina alfer-alferrik. Gaixoa! Zer egingo du Mamukik Gau Beltza ospatu ezinik...?

Etxeko agertoki minimalistan txakur jolastia ere saiatuko da Mamuki sendatzen, baina orduak joan, orduak etorri, munstroak joan, munstroak etorri, ez da konponbiderik inondik ere agertuko. Edo bai...

Apaindura gutxiko etxean osagai bakoitzak sinbolismo handia erakusten du, erlojuak eta ilargiak batik bat, txakurarekin batera betiere. Baina istorio-misterioa arras aldatuko da, erlojuak argi adierazi bezala, bi orduren buruan munstroek eta piztiek elkar hartzen dutenean...

Narrazioa paralelismoetan eta hitz jokoetan eraikia dago, erritmoa eta errima erabiltzen ditu eta hurrei oso gertukoa eginen zaie; barrea eraginen du ustez beldurra nagusi den kontakizunean. Testua, finean, beldurrari buruzko gogoeta jostagarria bilakatuko da, gertukoa eta goxoa.

Bitxia da, baina erritmoa eta errima horiexek ere dira ilustrazioen ezaugarriak, benetan dira samurrak eta maitagarriak, dibertigarriak eta ganberroak. Horregatik da bikaina **Mamuki** albuma, testuaren eta ilustrazioaren arteko uztarketa aparta delako, biek ere soilak eta sotilak diruditen arren. Irakurlearengan irribarrea eta konplizitatea pizten dute, eta orrialdeetan atzera egiteko gogoia, lehen begiratuan ikusi ez ditugun xehetasunak bilatzeko, ludikotasuna eta adiskidetasuna aldarrikatzeko.

### Obra premiada:

**Mamuki** es un álbum humorístico sobre el miedo. Es la Noche de ánimas y los fantasmas tienen que dar sustos, tienen que meter miedo en los alrededores. Pero el pequeño fantasma está enfermo y varios personajes terroríficos intentarán sanarlo o curarlo: el vampiro, el zombi... o los que son más cercanos a nosotros como Zakuzahar o Otsoko, pero todo ello en vano. ¡Pobrecito! ¿Qué hará Mamuki sin poder celebrar la Noche de ánimas...?

En el escenario minimalista de la casa, el perro juguetón también intentará curar a Mamuki, pero pasan las horas, los monstruos vienen y van, y no llega ninguna solución de ninguna parte. O sí...

En una casa poco decorada cada componente muestra un gran simbolismo, sobre todo el reloj y la luna, siempre en compañía del perro. Pero el misterio de la historia cambiará mucho cuando, como claramente indica el reloj, al cabo de dos horas los monstruos y las bestias se unan...

La narración está construida con paralelismos y juegos de palabras, utiliza el ritmo y la rima y a las niñas y los niños se les hará muy cercana; provocará la risa en un relato en el que se cree que reina el miedo. En definitiva, el texto se convertirá en una divertida reflexión sobre el miedo, cercana y deliciosa.

Es curioso, pero el ritmo y las rimas también son características de las ilustraciones, son realmente tiernas y cariñosas, divertidas y gamberras. Por eso es genial el álbum **Mamuki**, porque es una extraordinaria conjunción entre texto e ilustración, aunque ambos parecen sobrios y sutiles. Despiertan la sonrisa y la complicidad y las ganas de retroceder en las páginas para buscar detalles que a primera vista no hemos visto, para reivindicar la lucidez y la amistad.



# 2024 [etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

Nafarroako 23 toki entitate / 23 entidades locales de Navarra



## Epaimahaia:

Miren Asiain (ilustratzailea)  
Idoia Sobrino (liburuzaina)  
Patxi Zubizarreta (idazlea)

**Saria:** Sari bakarra eman da, 5.000 eurokoa.

**Argitalpena:** Saritutako lana Nafarroako Pamiela argitaletxeak argitaratuko du, euskaraz, 2024ko udazkenean.

## Saridunei buruzko informazioa:

### Maite Rosende Gutierrez

Ilustratzailea

1991ean jaio zen Donostian eta txikia zenetik pinturez inguratuta bizi da.

Batziler Artistikoa ikasi zuen eta amaitzean Bartzelonara joan zen pintura muraleko goimailako gradu bat egitera. Ilustrazioa ikasi ondoren, Bartzelonako etapa amaitutzat eman zuen.

Hainbat diziplina artistikotan trebatzen jarraitu zuen, baita diseinu grafikoan, argazkigintzan eta bideo-edizioan ere.

Gaur egun freelance gisa egiten du lan ikus-entzunezko piezen, kartelen eta ilustrazioen enkarguak eginez, bere lan pertsonalak albo batera utzi gabe.

## Jurado:

Miren Asiain (ilustradora)  
Idoia Sobrino (bibliotecaria)  
Patxi Zubizarreta (escritor)

**Premio:** Se ha concedido un único premio de 5.000 €.

**Publicación:** La obra premiada lo publicará la editorial navarra Pamiela, en euskera, en otoño de 2024.

## Información sobre las autoras de la obra:



### Maite Rosende Gutierrez

Ilustradora

Nació en 1991 en San Sebastián y desde que tiene uso de razón vive rodeada de pinturas.

Estudió Bachiller Artístico y al terminar se mudó a Barcelona a realizar un grado superior de pintura mural. Después de estudiar ilustración dio por finalizada su etapa en Barcelona.

Continuó formándose en diferentes disciplinas artísticas, así como diseño gráfico, fotografía y edición de video.

Actualmente trabaja como freelance realizando encargos de piezas audiovisuales, carteles e ilustración, sin dejar de hacer sus trabajos más personales.



# 2024 [etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

Nafarroako 23 toki entitate / 23 entidades locales de Navarra



## Nerea Ariznabarreta Izkue

Idazlea

Eibarren jaio zen, hiri armagile, ekintzaile eta industrialean. Baina haurtzaroko asteburu guztiak bere aitaren baserrian igaro zituen. Aitak, ipuinak, elezaharrak eta haurtzaroko bizipenak kontatu eta asmatzen zizkion eta Nereak errealitate majiko hori gustura sinesten zuen. Amarengandik abesteko zaletasuna jaso zuen. Amak ipuinak grinez kontatzen zizkion, pertsonaiei ahots ezberdinak jarritz eta kantuek asmatuz. Gustuko zuen berarentzat antzeztea.

Eta nahasketa horretatik atera zen Nerea, narratzailea eta antzerkigilea. 2003an hasi zen ipuinak kontatzen eta 2008an antzerki-konpainia bat sortu zuen bi lagunekin batera.

Esperientziak eta zenbait ikastarok narratzaile gisa trebatu dute eta bestelako ikasketek -gorputz hezkuntza, antzerki fisikoa, clown eta pianoak- istorioak ahotsarekin, keinuarekin, objektuekin eta kantuekin asmatzera eta kontatzera eraman dute.

## Nerea Ariznabarreta Izkue

Escritora

Nació en Eibar, ciudad armera, emprendedora e industrial. Pero pasó todos los fines de semana de su infancia en el caserío de su padre. Su padre le contaba e inventaba cuentos, leyendas y vivencias de su infancia y a Nerea le gustaba creer en esa realidad mágica. De su madre recibió la afición a cantar. Su madre le contaba cuentos con pasión, poniendo diferentes voces a los personajes e inventando canciones. Le gustaba que actuara para ella.

Y de esa mezcla salió Nerea, narradora y dramaturga. Comenzó a contar cuentos en 2003 y en 2008 fundó una compañía de teatro junto a dos amigas.

La experiencia y algunos cursos le han formado como narradora y otros estudios -educación física, teatro físico, clown y piano- le han llevado a inventar y contar historias con la voz, el gesto, los objetos y las canciones.



# 2024 [etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

Nafarroako 23 toki entitate / 23 entidades locales de Navarra



**Antolatzaileak:** Etxepare saria Nafarroako 23 toki entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen dute. Hona zerrenda:

Agoizko Udala	Ayuntamiento de Aóiz
Antsoaingo Udala	Ayuntamiento de Ansoáin
Atarrabiako Udala	Ayuntamiento de Villava
Barañaingo Udala	Ayuntamiento de Barañáin
Baztango Udala	Ayuntamiento de Baztan
Berriobeitiko Udala	Ayuntamiento de Berrioplano
Berriozarko Udala	Ayuntamiento de Berriozar
Bortzirietako Euskara Mank.	Mancom. de Euskera de Bortziriak
Burlatako Udala	Ayuntamiento de Burlada
Esteribarko Udala	Ayuntamiento de Esteribar
Galar Zendeako Udala	Ayuntamiento de Cendea de Galar

**Laguntzaileak:** Pamiela argitaletxea eta Galtzagorri elkarte.

**Babeslea:** Nafarroako Gobernua (Euskarabidea).

**Sariaren ibilbidea:** Nafarroako 23 entitatek, haien euskara zerbitzuen bidez, antolatzen duten literatura sari honen hazia —album ilustratuak euskaraz sortzeko eta argitaratzeko xedearekin— 2004an erein bazen ere, esan genezake egungo egoera zertxobait aldatu dela. Izan ere, garai hartan ikusitako beharra, hutsunea, ez da hain nabarmena. Zer esanik ez Pamiela argitaletxetik, Kalandraka argitaletxearekin batera arituta, jasotzen dugun uztari dagokionez. Aurtengoarekin dagoeneko 17 izango baitira album ilustratu sarituak eta argitaratuak euskaraz, sari hau dela medio. Guztiak ere kalitate handikoak.

Horrekin guztiarekin batera, Iruñeko Udalak, urtero, ilustratzaile eta idazleekin BikoTeka topaketak antolatzen ditu, eta bertan ere album ilustratu ederrak sortu dituzte, saria jaso dutenak edo argitaratu direnak. Hain zuzen ere, aurtengo edizioa irabazleek topaketa horietan parte hartu dute. Izan ere, Etxepare saria, urte luzez, sortzaileen hauspoa izan da. Haiei esker, istorio eta irudi zoragarriak loratu dira ikusgarritasunaren eta prestigioaren landan.

Literatura lehiaketan alorrean erreferentzia izanen zen saria sortzeko xedearekin jaio bazen ere Etxepare saria, hemendik aurrera —aurrekoaz gain—, hertsiki lotuta dagoen beste lan bati helduko dio: kulturak duen funtzio linguistikoa sakondu.

Kultura iruditeriek bide asko zabaltzen dizkigute, eta baita lagundu ere munduan leku bat egiten, komunitate bat egituratzen, barne-mundua elikatzen, trukea sustatzen, jolaserako espazioa sortzen, arakatzera gonbidatzen, etab. Bide horiek guztiak euskal kulturatik egiteak badakar mundu-ikuskerara jakin batzuetatik aritzea, komunitate jakin batzuekin lotzea, jolaserako baliabide konkretu batzuetan trebatzea, etab.

**Organizadores:** El Premio Etxepare lo organizan 23 entidades locales de Navarra, a través de sus servicios de euskera. La relación de ellas es la siguiente:

Garesko Udala	Ayuntamiento de Puente la Reina
Irantzu Mankomunitatea	Mancomunidad Irtanzu
Iruñeko Udala	Ayuntamiento de Pamplona
Nafarroako Iparraldeko Euskara Mank.	Mancom. de Euskera del Norte de Navarra
Noain-Elortzibarko Udala	Ayuntamiento de Noáin-Valle de Elorz
Lizarrako Udala	Ayuntamiento de Estella
Malerekako Mankomunitatea	Mancomunidad de Malerreka
Sakanako Mankomunitatea	Mancomunidad de Sakana
Tafallako Udala	Ayuntamiento de Tafalla
Uharteko Udala	Ayuntamiento de Huarte
Zaraitzu eta Eronkariko Batzorde Nagusiak	Juntas Generales de Salazar y Roncal
Zizur Nagusiko Udala	Ayuntamiento de Zizur Mayor

**Colaboran:** Editorial Pamiela y asociación Galtzagorri.

**Patrocina:** Gobierno de Navarra (Instituto Navarro del Euskera).

**Trajectory del Premio:** A pesar de que el germen de este premio literario que organizan 23 entidades navarras a través de sus servicios de euskera —con el objetivo de crear y publicar álbumes ilustrados en euskera— se sembró en 2004, podríamos decir que la situación actual ha cambiado. Y es que la necesidad, el vacío, visto en aquella época no es tan evidente. Qué decir de la cosecha que recibimos de la editorial Pamiela, en colaboración con Kalandraka. Este año serán ya 17 los álbumes ilustrados premiados y publicados en euskera con motivo de este premio. Todos ellos de gran calidad.

Junto a todo ello, el Ayuntamiento de Pamplona organiza todos los años los encuentros BikoTeka con personas que trabajan la ilustración y la escritura, donde también han creado maravillosos álbumes ilustrados que han sido premiados y publicados. Precisamente, las personas ganadoras de esta edición han participado en dichos encuentros. Y es que el premio Etxepare, durante años, ha sido un fuelle de personas creadoras. Gracias a ellas y ellos han florecido historias e imágenes maravillosas en el campo de la visibilidad y el prestigio.

Si bien el premio Etxepare nació con el objetivo de crear un premio que sirviera de referencia en el ámbito de los concursos literarios, a partir de ahora —además del anterior— abordará otra labor estrechamente relacionada: profundizar en la función lingüística de la cultura.

Los imaginarios culturales nos abren muchos caminos y nos ayudan a construir un lugar en el mundo, a estructurar una comunidad, a alimentar el mundo interior, a fomentar el intercambio, a crear espacio para el juego, a invitar a explorar, etc. Todos estos caminos desde la cultura en euskera implican actuar desde ciertas visiones del mundo, asociarse a determinadas comunidades, formarse en determinados recursos para el juego, etc.



# 2024 [etxeparesaria.eus](http://etxeparesaria.eus)

**Nafarroako 23 toki entitate / 23 entidades locales de Navarra**



Ez dugu ahazten ere, bestalde, euskarak —bere eremuan— kalitatezko eta erakargarri izan behar duela, ikusgarritasuna eta prestigioa lortu nahi baditu. Garrantzi handia du ikusgari izateak, inguruko beste kulturen pare agertzeak, eta horretan dugu erronka, ikusgari eta eskuragarria izatea. Euskal kultura bizi eta gozatea lor daiteke, eta zenbat eta gehiagok bere egin, orduan eta prestigio handiagoa izango du.

Tampoco olvidamos que el euskera, en su ámbito, debe ser de calidad y atractivo si quiere conseguir visibilidad y prestigio. Es importante ser visible, parecerse a otras culturas del entorno, y en eso tenemos el reto de ser visibles y accesibles. Se puede conseguir vivenciar y disfrutar la cultura en euskera, y cuantas más personas la hagan suya, más prestigio tendrá.

## Aurreko edizioetako saridunak:

## Premiados y premiadas en ediciones anteriores:

Urtea/ Año	Lana/ Obra	Egileak/ Autores y autoras
2023	<i>Saria eman gabe/ Premio desierto</i>	-----
2022	<i>Kiratsa</i>	Iban Illarramendi & Eider Perez Adeletx
2021	<i>Dorotea</i>	Amaia Egidazu
2020	<i>Lorerik gorriena</i>	Sandra Garayoa & Itziar Otegi
2019	<i>Etxe honetan</i>	Aintzane Usandizaga & Asier Iturralde "Gaston"
2018	<i>Cosimoren katiuskak</i>	Dani Mariarena & Ana Ibáñez
2017	<i>Arraroa</i>	Ainara Azpiazu "Axi" & Paula Estévez
2016	<i>Zerua gris dago</i>	Liébana Goñi & Isak Martínez
2015	<i>Munstroek ere pixa egiten dute ohean</i>	Pello Añorga & Jokin Mitxelena
2014	<i>Hiltzaileak</i>	Leire Salaberria
2013	<i>Gerrak ez du izenik</i>	Leire Bilbao & Maite Mutuberria
2011	<i>Hara!</i>	Miren Asiain
2010	<i>Euria ari duenean</i>	Leire Salaberria
2009	<i>Alex, nire laguna</i>	Mikel Gurrutxaga & Maite Gurrutxaga
2008	<i>Katalina kontalari</i>	Iñaki Zubeldia & Estibalitz Jalón
2007	<i>Zirkua amets</i>	Joxan Ormazabal & Iraia Okina
2006	<i>Gerlari Handia</i>	Pello Añorga & Jokin Mitxelena

Irabazleekin harremanetan jartzeko:

Para contactar con las premiadas:

**Maite Rosende** – 638 068 112 – [maiterosende@hotmail.com](mailto:maiterosende@hotmail.com)

**Nerea Ariznabarreta** – 645 732 391 – [nere.ariznabarreta@gmail.com](mailto:nere.ariznabarreta@gmail.com)